

EUSKALKIA ETA ADMINISTRAZINOA

Aurkezpena.

Hainbat idatzi izan da azken hiru urteotan, euskalkiak gure euskararen geroan izan behar daben lekuari buruz. Baita, Euskal Herri osoan euskara batua zabaldu ostean, lekuan lekuko berbetek euskara idatzian izan beharko leukien lekuari buruz bere.

Joan zan udazkenean, euskara batua abiabidean jarri zane-tik hogeita bost urte igaro zirela eta, Euskaltzaindiak Bilbon gai honen inguruko jardunaldiak eratu zituenean, pil-pilean izan genduan, batez bere norbaitzuk gaur egun euskarak di-tuan akats nagusiak herri-berbetak alde batera itzi eta euskara batua erabiltzeari leporatu ostean.

Mendebalde Kultur Alkarteak urteroko ohiturari jarraituz maiatzean eraturako jardunaldietan “*Euskalkia eta administra-zinoa*” gaia hartu eban aztertzeke gaitzat aurtengoetan. Egia esan, aztertzeke baino gehiago, gogoetari hasiera emoteko izan zala uste dot. Edo hobeto esanda, Euskal Herriko hainbat bazterretan aztertzen diharduen arloari begirada bat luzatzeko.

Ni, neu, aspalditik euskalkien (batez bere bizkaieraren) ikerketa lanetan buru-belarri lanean izanik, gogo biziz hurrera-

¹² *Euskalkia eta Administrazinoa* (VI. Jardunaldiak), Bibo (2002). Nahi izan ezkerro begiratu Mendebalde Kultur Alkarteak Jardunaldietako herbaldi gehienak jasoz argitaraturako liburutxoak. Bertatik jaso ditut hemen zuei es-kaintzen deusuedazan atalak.

tu nintzan Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzara, han berba egiteko ziranak zer barri ekarren jakiteko egarriz. Nire gogoak ez zirala ustel atera esan behar, ezer baino lehenago. Oso interesgarriak iruditu jatazan, iruditu bere hango berbaldiak. Beti izaten da jakingarria, hainbat ordu luzetan gogotsu lan eginda lortutako ikerlanen emoiak bat-batean jaso ahal izatea.

Aurtengo jardunaldiek, gainera, bi arlo ezbardinen artean zubia edo egin gura eben, euskalkia eta administrazioa alkarren artean lotu guraz. Administrazioa itzultzaile izatean eragina izan leikeala nire lanbidean, eta, esan dodan legez, gogo biziz joan nintzan jardunaldietara. Hona hemen bertan jasotako hainbat barri.¹²

1. ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Lehenengo eta behin gogora ekarri behar dogu administrazio-sare barruan bizi garala. Danok izaten dogu bizitzan zehar, asko edo gutxi, udalera, aldundira, ikastetxeetara, osasun-zentroetara,...joan beharra. Hori horrela, gaur egun, pertsonok administrazioaren atzaparretan harrapatuta bizi garala entzun izan dogu inoiz. Hainbestearainokoa ez bada bere, nekez bizi gaitekez administrazioarekin tril edo topo egin barik.

Hori dala eta, euskaldun izan eta euskaraz bizi gura dogunok, zelan eratuta dagoen arlo zabal hori begiratu eta aztertu beharra dogu; baita zenbateraino erabili izan dan euskara bertan eta zenbateraino erabili daikegun jakin beharra bere. Beraz, aurkezten deusuedazan jardunaldietan esandakoak jaso eta eskaintzerakoan, izenburuak berak gogoratzen deuskunari jarraituz, atalik atal jardungo dot, lehen atala administrazioari berari eskainiz, eta bigarrena, euskalkiari.

1.1. Hainbat jakingarri historiko

Arloa jorratzen hasteko, jardunaldietako egitarauan euskarak historian zehar administrazioan izan dauan lekua aztertzer bideratutako lau berbaldi nagusi izan genduzala esan behar.

Oso interesgarriak, benetan, euskara administrazio eremutik hainbatean aldentuta izan badugu bere, baditugulako hortik zehar adibide jakingarri batzuk bere. Goazen bada, banaka aurkeztera:

1.1.1. *Euskararen erabilpena Lapurdiko eta Behenafarroako Instituzioneetan iraultza aurretik.* Arloa sakon aztertu dauan Manex Goienetxek hainbat datu historiko eskaini euskuzan. Honela, esaterako, zelan izan ziren euskaraz Lapurdiko ordezkarien eta Estatuko artean hainbat idazki agertu euskun. Frantziako Batzar Nagusiek une batean ofizialtasuna autortu eutsoela euskarari, baina beste lurralde batzuk bere beste hainbeste eskatuko ebela uste izanik, bereizketarik ez egiteko atzera jo ebela gogoratu euskun. Dana dala, udal batzuetan, debekuak debeku, erabili egin zala euskara bertako hainbat barri, obra-aurrekontuak eta aitatzean. Askatasunaren eta bardintasunaren defendatzaile sutsu bihurtu zan errepublikak, ahalegin sutsuenak bardintasan dontsuaren alde jarriz estatu barruko Herrialdeen berezitasunak ito ei zituan.

1.1.2.- *Administrazio idazkiak Nafarroan* izan genduan bigarren berbaldia. Jose Mari Sastrutegi jaunak, beti erabilten dauan euskara txukunean, Nafarroako hainbat barri jarri euskuzan aurrez aurre. Egia esan, Nafarroa, euskal testu zaharren harrobi emankorra izan dan modura, administrazio arloan bere lekukorik ugarien jasoten dituan lurraldea ei dogu. Lurralde honetan, "gutun/idazkiak, eraikuntza laneko kandelak, karguak aldatzeko aktak, ordenantzak" aurkitu dira euskaraz. Antzinako agiriak aztertu ahala, geroago eta adibide gehiago izango ditugula uste dau Jose Mari. Antzinako agiri horreek zelako euskara erabilten eben eta zein egoeratan zegoen gure hizkuntza ezagutzeko aukera eskaintzeaz batera, zelakoak izaten ziran aldi hareetan herrien arteko (batzutan mugaz handiko udalekin bere bai) hartu-emonak bere emongo deuskue aditzera.

1.1.3.- *Euskara eta zuzenbide biztegia Zuberoan* izan genduan hirugarren berbaldia. Txomin Pellen jaunak honako ber-

izateko aukera bere izan genduan. Nik hiru gogora ekarri gura ditut labur-labur, hurrengo puntuan gogoeta egitera jotzeko.

1.2.1.- *Euskararen erabilera Bermeoko udalean.* Imanol Bilbao UEMAko idazkari-teknikaria danak oso berbaldi interesgarria eskaini euskun. Bermeoko udalak euskarari lekua egiten egindako ahalegin ugariak gogora ekarri ostean, hilde batez Bermeo moduko udal handi bat UEMAn sartzeak jendeak eukazan hainbat asmo ustel uxatzea ekarri daukela esanez. Hainbeste langile dituan udal handi batek horrela jokatzeko eredu izan daitekegula.

Euskararen Legea atzeratuta geratu ei da (administrazio elebidunaren alde ageri dalako), eta une honetan estropozu bere badogula esatera ausartu zan: *“Konklusino modura esan beharra dago, Euskararen Legeak ez daukela onartzen, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ostean, Erkorekaren berbatan “euskaraz bakarrik gauzatuko den administrazio jarduerarik, ez eta euskera soilaren erabilera hori herritarren bizkuntza eskubideak bermatuz ematen denean ere”.* Arautegi honek benetan egoera gatzean izten dauz Bermeoko Udala eta beraren modura euskeraren aldeko apustu gogorra egin daben gaintzeko udalak”. (Ib. 107. orr.)

Hori horrela, Bermeoko udalak ahalegin handiak egiten ei dihardu bai udal barruko langileen hartu-emonak bai herritarrekin dituenak euskaraz izan daitezkan. Hori bai, herritarren batek testuren bat erdaraz jasotea eskatzen dauanean, horrela eskaintzan jakola, bere gogoeta errespetatuz. Horrek administrazioaren orain arteko jokaera aldatzea ekarri dau, leku gehienetan lehenengo erdaraz eta eskatu ezker euskaraz eskaini izan diralako zerbitzuak. Berbaldi ederrari amaiera emoteko, bizkaieraren erabilerari buruzko hainbat gogoeta eskaini ostean honako hau esan euskun:

“Nik esango neuke bat be zalantza barik, Bermeoko adibideak ezer irakasten badeusku hauxe dala: hainbat eta hainbat udalerritan, Bizkaian be bai, euskera hutsean jarduteko pau-

izateko aukera bere izan genduan. Nik hiru gogora ekarri gura ditut labor-labor, hurrengo puntuan gogoeta egitera jotzeko.

1.2.1.- *Euskararen erabilera Bermeoko udalean.* Imanol Bilbao UEMAKo idazkari-teknikaria danak oso berbaldi interesgarria eskaini euskun. Bermeoko udalak euskarari lekua egiten egindako ahalegin ugariak gogora ekarri ostean, bide batez Bermeo moduko udal handi bat UEMAn sartzeak jendeak eukazan hainbat asmo ustel uxatzea ekarri dauala esanez. Hainbeste langile dituan udal handi batek horrela jokatzeko eredu izan daikegula.

Euskararen Legea atzeratuta geratu ei da (administrazio elebidunaren alde ageri dalako), eta une honetan estropozu bere badogula esatera ausartu zan: *“Konklusino modura esan beharra dago, Euskararen Legeak ez daukala onartzen, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ostean, Erkorekaren berhatan “euskaraz bakarrik gauzatuko den administrazio jarduerarik, ez eta euskera soilaren erabilera hori herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz ematen denean ere”.* Arautegi honek benetan egoera gatxean izten dauz Bermeoko Udala eta beraren modura euskeraren aldeko apustu gogorra egin daben gaintzeko udalak” (Ib. 107. orr.)

Hori horrela, Bermeoko udalak ahalegin handiak egiten ei dihardu bai udal barruko langileen hartu-emonak bai herritarrekin dituenak euskaraz izan daitezkan. Hori bai, herritarren batek testuren bat erdaraz jasotea eskatzen dauanean, horrela eskaintzan jakola, bere gogoeta errespetatuz. Horrek administrazioaren orain arteko jokaera aldatzea ekarri dau, leku gehienetan lehenengo erdaraz eta eskatu ezker euskaraz eskaini izan diralako zerbitzuak. Berbaldi ederrari amaiera emoteko, bizkaieraren erabilerari buruzko hainbat gogoeta eskaini ostean honako hau esan euskun:

“Nik esango neuke bat be zalantza barik, Bermeoko adibideak ezer irakasten badeusku hauxe dala: hainbat eta hainbat udalerritan, Bizkaian be bai, euskera hutsean jarduteko pau-

soa emon daitekeela, horretarako behar dan guztia dagoalako. Batetik, herritarrak hau onartzeko prest dagoz, eta bestetik, funtzionarioak trebatuta ez badagoz trebatu daitezke, eta azkenik legediak be, salbuespen batzuekin bada be, abalbidertzen dau erabilera hori.

Bermeon lortu dana, euskera eta bizkaiera benetako administrazioko lan bizkuntza izatea da. Ordezkarri politiko eta funtzionario konprometitu batzuei esker lortu da hori eta beste horrenbeste egin daiteke udalerrri askotan, ze sarritan nagitasunagaitik edo bildurragaitik, gehienetan atxakia modura erabilten da "herria ez dagoala prestatuta udalaren erabagiak euskera hutsean hartzeko", baina argudio hori faltsua dala frogatuta geratu da gure herrian.

Beharbada falta dana da ausardia nabikoa gure ordezkari politikoaren aldetik. Edo txarragoa litzatekeena: borondatea. Argi dago euskeraz behar egiteak konpromiso maila bat eskatzen dauala erantzukizun publikoa daukagun guztion aldetik, berba betean esateko "euskeraren militanteak" izatea. Baina zoritxarrez badirudi alderdi abertzaleetako kideak izan arren, askorentzat euskera apaingarria besterik ez dala. Horretarako be balioko dau, beharbada, Bermeoko eta UEMAko gainontzeko udalen esperientziak, lo dagozan batzuen kontzientziak esnarazoten laguntzeko" (Ib. 116-117. orr.)

1.2.2.- *Euskal Herriko elizearen jokabidea itzulpen arloan. Lontzo Zugazaga abadeak, bere berbaldian, Jaungoikoak bere asmoak gizon-emakumeoi jakitera emoteko izandako bideak abiapuntutzat hartuz (lehen partean teologiako ikasgai luze eta argia eskaini euskun) egitarauan agertzen dan laburpen hau azaltzen saiatu zan: "Kristau mezuaren zerbitzari izanik, bentako komunikazio salbatzailea lortu gura dau elizak. Horretarako, teologi oinarriak aintzat hartuz, euskalkiekazko begirunez jokatu izan dau euskal elizak baliabideen itzulpen arloan".*

Eleizak mendez mende ebanjelioa irakasteko erabili izan dauan bidea herri bakoitzean bertako hizkuntzara egokitzea

izan dala; hori dala eta Vatikanoko Kontzilio arte liturgian izandako latinaren erabilerak agerian jartzen eban kontraesana aitatu ostean, Kontzilio osteko urteetan emondako pausoak argitzen ahalegindu zan. Eleizaren ardura nagusia hizkuntzaren “komunikabidetasuna” izan dala agerian jartzen jardun eban.

Bere berbaldiari apologia edo defentsa kutsu lartxo hartu neutsan. Ez eban nahiko argi defendatu edozein pertsonak (talde handikoa nahiz txikikoa izan) Jaungoikoaganako hartu-emonak bere hizkuntzan egiteko daukan eskubidea; edota eleizak herriak osotasunean hartu behar dituala.

Berbaldi ostean izan zan alkarrizketa bizian, norbaitzuk eleiza atzera-pausoak emoten hasi dala salatu eben, adibidez, lehen euskara hutsean emoten ziran hainbat herritako mezak (atxakitzat erdaldun batzuk bertara joaten dirala hartuz) elbidun bihurtzen hasi dirala hainbat herri euskaldunetan esanez. Eta, jakina, ez ei da alderantziz jazoten erdarako mezatan! Erantzunean, atsekabez onartu eban, gaur egun, lehenago inork baino arduratsuago jardun eban eliza, atzeraka hasi dala. Historian zehar euskararen alde halako lan handia egin ostean, euskaraz erantzun ezinik geratu ei da.

Lontzoren berbaldian hainbat datu eskaintzen diranez, berak eskainiko laburpena jasoz amaitu gura neuke:

“Gauza argia eta agiria da elizea, bere ebanjelizatze eginkizuna betetzerakoan, kultur sailean sartzen dana, zebarka baino ez bada bere, hizkuntza erabiltzean komunikabide tresna modura. Halan bere, elizak ez dau zuzeneko bere eginkizuntzat hartzen kultur sailak lantzea. Baina horretarako lan egiten daben erakundeekazko begirune osoa izanda, zentzunez eta burkotasunez jokatu gura dau, presaka joan beharraren zurrumbilioak ito eta itsutu ez dagian, edota, atzean geldituz, urak joan ondoren presea egiten hasi ez daiten” (Ib. 145. orr).

1.2.3.- *Herri aginteen zeregina hizkuntza gutxituen eretzetan: Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako gizarte-ekinaldiak.*

Luzea adina interesgarria dogun izenburu hau berbabide hartuz hainbat jakingarri eskaini euskuzan Anjel Lobera Revilla, Bizkaiko Foru Aldundian Euskara Sustatzeko zuzendari nagusiak bere.

Esparruari mugak jarritz hasi zan. Egin-eginean bere, Bizkaiko Aldundiak, 1999an Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia sortu ebanetik, abiabidetzat “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia” hartuz, Eusko Jaurlaritzaren eta udal erakundeen artean zubi-lanak egiteko Planeko hiru helburu estrategikoak bultzatzeari ekin ei deutsola.

“Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakunde nagusi legez, bizkortu nahi ditu udal eta mankomunitateek euskararen alde sakaturiko ekintzak.

Gizartearen ekimena da Bizkaiko Foru Aldundiak duen beste eremu nagusia, eta, Bizkaiko Lurralde Historikoan euskara bera sustatzeko ahaleginetan, argi eta garbi bereizi zituen azpi-arlo biok: hizkuntzaren korpusa eta hizkuntzaren estatusa. Horretara, bada, Bizkaiko Foru Aldundiak euskara bera sustatzeko egindako ahalegin guztiek gure hizkuntzaren estatusa zaindu eta auzatzera jo dute.

Berbaldi honen gaiaren inguruan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren lehenengo helburu estrategikoak du nagusitasuna: “belaunalditik belaunaldirako igortzea”, eta helburu hori lortu dugu estatusarekin. Hau da, hizkuntza bat belaunaldirik belaunaldira, abotik belarrira, igortzen dute hiztunek, baldin eta eurentzat mintzaira hori estimatzen badute. Bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu nagusia izan da Bizkaiko euskaldunek euren hizkuntza aintzat hartu eta estimatzea, eta, horren ondorioz, eta zeharka, haren erabilera eragitea” (Ib. 148. orr.).

Hizkuntzaren politikan epe luzera jarduteko abiaburu nagusiak bi direla kontuan hartzen ditu; hau da, jendearen “atxiki-mendua” bilatzea eta aginteen “politika liberala” baztertzea. Eta horretarako hainbat kanpaina jarri ditu abiabidean, bai he-

rritarrak euskara ikastera bultzatzeko bai euskara gurasoengandik jaso dabenak erabiltzera ekarteko.

Guzti hori burutzeko Psikolinguistikak eskaintzen deuskuzan datuak gogora ekarriz jokatzeko saiatu ei dira, hainbat eragilek (hizkuntzaren prestigioak, jarrera politikoek, gizarteak daukan jarrerak, hiztunek erabilteko daukeen joerak, nazioarteko jarrerak edo ikuspegiak, lanbiderako eragingarritasunak, gizabanakoaren barruko komunikazioak) daukeen garrantzia aztertuta gero. Labur esanda:

“Hizkuntza bat, mundu ikuspegi baten edo mundu baten isla ez ezik, mundu ikuspegi baten edo mundu baten eratzaillea da. Ikuspegi horretatik, hizkuntzek komunikatzeko balio behar dutela entzuten dudanean, esaldi horri ments antzematen diot. Nire aburuz, mundu jakin baten komunikatzeko balio behar dute; horrezaz gainera, kultura jakin baten igorbidia dugu, belaun bat bestearekin lotzen duena, eta, horrela, kultura baten belaunaldien arteko lokarria dugu.

Nik ez dut sinesten “hizkuntza guztiak berez berdinak” direnik (“Txepetxe-k). Ostera, hizkuntza guztiak berez ezberdinak dira izaeran, eta bakoitzak mundua modu jakin baten islatzen du, bai gizartea antolatzeke, bai famili harremanak eratzeko, bai norbanakoen sentimenduak adierazteko eta abar: ez dago teoria bakarrik, giza hizkuntza guztiak azal ditzakeenik (Yehouda Harpaz-ek).

Hizkuntzaren eretzean, zientzi ikerketa askotan jatorrizko bekatua ageri da: ikertzaileak falta du tokian tokiko berbeldunaren sena, eta honek esaten dituenak, aipatzen dituenak... ikertzaileak bere kultur galbahetik aztertzen ditu, eta horren ondorioak atera. Modu horretara jokatzeko nork lehendaurrez ezarritako ondorioetara heltzea baino ez da, baina horrek ez du arazoa ebazten, estal badezake ere. Herri aginteen zereginna da, ordea, enpirikotasuna landu, errealitatea zein den jakin, eta horren eredura jardun eta obratzea gizartearen” (Ib. 161. orr.).

1.3. Administrazioko hizkuntza mota

Jardunaldietan, hizkuntza (euskara) zenbateraino erabili izan dan eta erabilten dan administrazioan azaltzeaz gainera, zelako eran erabilten dan bere aztertu gura izan zan, beren-be-regi eratutako berbaldi bakar baten bidez izan arren. Egia esan, sarritan administrazioko hizkuntza bizitzako gainerako hizkuntza-esparruetatik oso urrutiko zerbait ez ete dan edo etorten jaku gogora.

Horri erantzutera etorri zan *Antilingua* deitutako berbaldia. Bere berbaldian Jesus Eizagirre jaunak aurrez aurre jarri euskun arazoa, sakona eta garrantzi handikoa izan zan. Administrazioan izaten diren hainbat akats ekarri euskuzan gogora. Hizkuntzak komunikazioa errez egiteko balio behar dauala esaten hasi, eta administrazioko berbetan askotan kontrakoa jazoten dala argitzera jo eban.

Hemen ezin dodanez berak esandako guztiaren barri jaso, egitarauan *Antilingua* aurkezteko datozan berbak batuko ditut, arazoaren nondik norakoak ikustera urreratzeko bide izango ditugulakoan. Honela dator: *“Administrazioan bedatua dago Italo Calvino idazleak antilingua izenez bataiatutako hizkera. Ez da komunikazioarekin ondo uztartzen. Baina, hala ere, profesional askok defendatzen dute, inertzia dutela arrazoi: “Administrazioan beti horrela idatzi izan da”. Euskarari dagokionez, ez da egia “beti” hala idatzi izan denik. Gaur egun antilinguan idazten bada, gaztelaniarekin liluratuta gaudelako da. Euskaraz antilingua defendatzea anakronikoa da: euskararen historia inoiz ere ez da administrazioan idatzi gaur egun bezain ilun, biburri eta ulergaitz. Antilinguan idaztea tradizioari uko egitea da”*.

Berdaldiaren osteko eztabaidan argi ikusi izan zan moduan, arlo honetan, sakonean danok bide beretik edo hardintsutik ibili arren, “zenbat buru hainbat aburu” esaera zaharra errepikatatu daiteke. Gai hau, beste barik nahikoa izango genduke egunetako aparteko ikastaro bat edo beste eratzeko. Euskara

erabilteaz gainera, noiz eta nola edo zein erregistrotan erabili une bakoitzean aztertzeak jardun luzeagoa eta sakonagoa eskatzen dau.

Jakingarri asko eskaini baeuskuzan bere, akats bat izan eballa uste dot. Egin-eginean bere, alde bateko adibideak bakarrik jartzea. Badakigu, ondo jakin bere, (euskara batuan nahiz euskalkian bardintsu jazoten dala) baditugula administrazioan euskara ondo erabilten dabenak, eta, baita, ardura gutxiz jokutzen dabenak bere. Horregatik, ez deritxot bidezkoa danik aspaldiko edota muturreko adibideak bakarrik jartzea. Era guztietako testuak ditugunez, era guztietakoak aurkeztu eta konparatu behar dirala uste dot. Halan da be, badogu, arlo honetan zer hausnartu eta zer konpondu!

Arlo honi argi gehiago egiteko, gogoan hartu beharko gendukez Maria Jose Arrieta andreak mahainguruan esandako berbak bere, argitasuna eskaintzen deuskue-eta: *Hizkera berezia izan arren, mezuaren argitasunak eta ulergarritasunak pisu handia daukie*. (...) *"Izan be, hizkera formala, zehatza eta argia izateak ez dakar beragaz kolorerik bakoa, doinu aspergarriduna eta inongo euskerearen arrastorik bakoa izatea"* (Ib. 182. orr.).

Edota, azken urteetako eguneroko esperientziak erakutsita Kontxi Gabantxo andrearen esandakoak: *"Administrazioan euskaraz jardutea nabikoa gauza barria da. Gure administrazioetan erdera izan da nagusi eta guar egunean ere, euskerraren esparruan asko egin arren, ondino asko falta da. (...) Kontuan hartu behar da administrazioko berbetea oso formala dala eta ondorengo ezaugarriak euki behar dauzala: zehaztasuna, argitasuna eta zuzentasuna"* (Ib. 191. orr.).

Kontxi andreak, aurrekoa azaldu ostean, sarri ahaztu egiten dogun beste zerbait bere esan euskun, hain zuzen bere, administrazioan erabilten diran testu guztiak ez dirala bardinak eta horrek hereizketa egitea eskatzen deuskula: *"Komunikatzea bada helburua, argi dago tokian tokiko berbetea erabiltzea*

egokia dana. Ez dauka zergaitik bardin izan behar, herriko bando batek, herritar guztiak irakurri eta jakinerazi behar jakena, edo batzar nagusiko akta bat edo gure kasuan mankomunitateko aktak. Argi dago nori edo nortzuri idazten deustagun, modu bateko edo beste euskera batua ala euskalkia, erabiliko dogula, ikutu bat do bestea eginez.” (Ib. 193 orr.)

2. EUSKALKIAK ADMINISTRAZIOAN

Izenburuan ageri dan moduan, jardunaldietako bigarren gaia euskalkiaren erabilera izan zan. Egin-eginean bere, ea euskalkiak administrazioko hartu-emonetan lekurik izan behar dauan hala ez jorratzea. Hizlariei nahiz mahainguruko parte-hartzaileei horri buruz eukeen eritzia eskatu jaken.

2.1. Hizlarien testuetako atal batzuk:

Bizkaiko kasuak izanik, bizkaieraren erabilerari buruzkoak ditugu erantzunak. Halan da bere, beste edozein euskalkiren kasuan ezartzekoak dira uste dot:

2.1.1. Bermeoko udalaren jarrera eta jokaera: Imanol Bilbao jaunak honako hau dakar bere berbaldian: *“Gorago esan dan modura, bizkaieraren aldeko apustua egin eban Bermeoko Udalak Udalbatza demokratikoak eratu bezain laster. Nire ustez bizkaierak euki beharko leuke leku bat administrazinoan, irakuskuntzan, komunikabideetan, merkataritzan zein beste edozein alorretan. Administrazinoak bizkaiera erabilteak abantaila handi bat suposatzen dau, herritarragazko hurretasunarena, hain zuzen be, gebienetan gauza arrotz eta ulertezin modura antzematen dan administrazinoak behar dauan leuntze bidean asko lagunduko leuke herritarrengatik gertuago dagoan hizkera erabilteak.*

Pauso hau emoteko aproposena tokiko administrazino da ezelako zalantza barik, hurren dagoana izateagaitik. Baina, bizkaiera erabilteko orduan beste erizpide bat izan daiteke eskumenarena. Honen arabera, euren eskumena Bizkaiko lu-

rraldera mugatuta daukien administrazinoek gure euskalkia erabili beharko leukie, Foru Aldundia barru. Gure eritxian jarraera hau ez da aditu behar euskeraren batasunaren aurkako eraso modura. Euskera batua behar beharrezkoa dala pentsatzen dogu, baina uste dogu, euskalkiek be euren esparrua euki behar dabela, eta kontrajarriak barik, osagarriak izan behar dabela” (Ib. 115-116. orr.).

2.1.2. Bizkaiko eleizaren irizpidea eta jarduera: Lontzo Zugazagaren ustez: *“Baldintzapenak baldintzapen eta mugak muga, elizeak benetan eta arduraz bizi dau euskerearen batasunaren kezka eta gogoa. Eta begi argiz begira egon gura dau hizkuntzaren heldutasunari eta herriak bizi dauan sozio-kulturazko aurrerabideari. Era berean, aintzat hartu nahi ditu Euskaltzaindiaren lanak, azterketak, zuzenbideak eta erabagiak, eta begurunez erabiltzen ditu baren arauak. Printzipio mailan elizeak garbi autortzen dau euskeraren batasuna gauza ona dala berez, bai hizkuntzarentzat, bai euskal herriarentzat, eta batasun hori bide zuzenetik egitea onuragarri dala komunikabide egokirako eta gure herriaren bake biderako.(..)*

“Eliza ez da jartzen kontra ez aurrez-aurre, eta ez dau izan nahi euskeraren arautze bidean kultur mailako beste erakunde bat, gizartean nortasun osoa daben erakundeei autonomia ukatzeko edo konpetentzia egiteko”. (...) Elizearen jokabidea dialektikoa dala esan geinke: benetan maite dau euskerearen batasuna, baina aldi berean argi ikusten dau euskalkien arteko urruntasuna eta herriaren zati bandi baten egoera malkal eta pobrea alfabetatzeari dagokionean.

Horregaitik, itzulpen arloan euskal herriko elizeak euskerari buruz izan dauan jokabidea batasunaren dinamikan sartzen dala esango geunke, baina aldi berean une honetarako beharrezko ikusten dauan pedagogia egokiaren araberrakoa dala, elizeari bere pastoal eginkizunak jartzen deutsozan lehenengo mailako eskakizun eta helburuen barruan” (Ib. 144-145. orr.)

2.1.3. Bizkaiko Aldundiaren jarduera eta jarrera. Gorago Gotzon Lobera jaunak jardunaldietako egitarauko aurkezpenean “*Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu nagusia izan da euskaldunek euren hizkuntza aintzat hartu eta estimatzea, eta, horren ondorioz, eta zeharka, haren erabilera eragitea*” dinosku. Hau da, jendeari dakiena erabiltera dei egitea eta ez daki tenak euskal mundura ekartea. Hori horrela euskara gizabana koaren barruko komunikazio egitea lortzea genduke garrantzitsuena:

“*Une honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handia egiten dihardu Bizkaiko euskaldunek euren berbetari euts diezaioten. Izan da ahalegin horretan euskara estandarren aurkako joera ikusi duenik. Ostera, Bizkaiko Foru Aldundiak oso garbi du Bizkai euskera sakatzea euskera bera bultzatzea dela, eta hori behin eta berriro esan behar da, ostera, bestela baitakoan iragaz daitekeen kontua izan bailitzateke. Euskara estandarren kontua hogeita hamarretaz urteko kontua dugu, eta Bizkaiko garako eta edadeko euskaldun zaharrentzat egundoko alde dago estandarretik euren berbetara. Beraz, zer egin behar dugu? Alde hori murriztu behar da ahal den neurrian; hori, ostera, ez da behar bestekoa, ezik hiztunak bere barrutik hizkuntza bat erabiltzen du, eta berak barruan darrabilen berbeta hori gutxietsita ikusten badu, ez du euskara batuan pentsatuko, ezpada gaztelaniaz. Eta ikuspegi horretatik ulertu behar da mintzodunen berezko euskararen aldeko ekintza*” (Ib. 159-160. orr.)

“*Gazte jendearekin, herriz, euskaldun berriak direlarik, beste oztopo bat aurkitu dugu: euskara euren jakintza-igorbidia da, baina euren pentsamenduak eta bizimodua erdaraz izaten dituzte. (...) Eta hiztunei ematen ez badiegu biderik, hori erdiets dezaten, orduan gure politika guztia kolokan izango da, ez baitugu lortuko belaunaldi berriek euren ondorengoei euskara igortzerik. Eta ataza hori eskolaren eskuetan bakarbakarririk uzteak ez du bermatuko berez hizkuntzak bizirik*”

iraungo duenik gizarte bizimoduan. Arlo honetan jarduteko, oster, ez dugu behar beste aztertu zeintzuk diren lanabesik egokienak eta eragingarrienak, helburu hori jadesteko. Edozlan ere, euskara prestigio hizkuntza izatea euskaldun biztunentzat ezinbesteko baldintza da, hortik aurrera egingo badugu” (Ib. 160. orr.)

2.2. Mahinguruko partaideen eritziak

Lehenago aitatu dogunez, jardunaldietan “*Administrazi-noaren eta herritarraren arteko lotura*” gaiari buruzko mahai inguru bat bere izan zan. Batzuk euren asmoak liburuan aurkeztuta dituzenez, bertatik jasoko ditut. Besteen kasuan, ezin esandakoak labur-labur batu baino besterik egin.

2.2.1. Mari Jose Arrieta (IVAPeko ordezkaria). “*Administrazioak kanpora nahiz barrura begira komunikatzeko erabiltzen daben hizkuntza motari administrazioko hizkera esaten deusagu. Hizkera berezia da administraziokoa. Honan sailkatu dabe behintzat espezialitateko hizkeren gaia ikertu daben hainbat autorek(...). Horrek esan gura dau administrazioa hizkeraren erabiltzaileak ez direla beti hiztun bereziak, askotan herritar normalak direla eta egoera hori oso kontuan hartu behar dau administrazioak bere hizkera berezi hori erabiltzen dabenean herritarrekaz komunikatzeko. Hizkera berezia izan arren, mezuaren argitasunak eta ulergarritasunak pisu handia daukie” (...) “*Izan be, hizkera formala, zehatza eta argia izateak ez dakar beragaz kolorerik bakoa, doinu aspergarriduna eta inongo euskerearen arrastorik bakoa izatea*” (Ib. 182. orr.).*

Aurreko berben bidez gaia mugatu ostean honako hau gaineratu eban: “*Administrazioko hizkeraren idaztarauak eta morfologia euskera baturako erabakitakoak dira, baina lexikoren eta sintaxiaren kasuan, eritxi zabalagoekaz jokatu daitekeenez, euskalkien hainbat baliabide aberats eskuratu dira, administrazioaren ekintzetan kasuan kasuan behar dan hel-*

burua lortzeko: batzutan dokumentu bateri dotorezia ikutua emoteko, besteetan herritarrari bialduko deutzagun jakinarazpena beretzako ulergarriago egiteko, bere bizkeratik burran dagozen formak erabiliz. Azken baten, administrazioko erabileran emoten diren hizkuntza maila desbardinekaz egokituko dan hizkera behar dogu, erabiltzaileen arteko komunikazioa hobetuko dabena” (Ib. 182-183. orr.)..

“Edozelan be, administrazioko hizkera finkatzerakoan, batten gaituenari emon behar deutzagu lehenasuna eta ez horrenbeste bereizten gaituenari. Hizkera berezi honen erabiltzaileen arteko ulergarritasuna oztopatzen badogu tokian tokiko bizkeren erabilera oso muturrera eroanda (aldaera fonetikoak idatzizko dokumentuetan agertuz edo lokalismo larregi sartuz, esate baterako), benetan arriskutsua izan daiteke lantzen gabilzan administrazioko hizkera honek aurrera egin dagian”. (Ib. 185. orr.)

2.2.2. Gorka Aurre (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko ordezkaria). Honen testurik ez danez liburuan ageri, berbaldian esandakoa jasoten saiatu naz. Euskalkien (garbiago esanda bizkaieraren) apologia egin eban Bizkaiko Batzar Nagusietan erabilitako euskera erdutzat jarritz. Gehiago esatera ere ausartu zan, hain zuzen bere, M^a Jose Arrieta andereak aitaturako “hizkera zehatza eta argia” euskalki bidez bakarrik lortu daitekeela defendatzer. Ez eban hizkuntzaren erabilera-mailan inolako alderik aitatu administrazioko berbetari buruz gogoeta egiterakoan. Derioko eskolakoek sarritan esandako “*dakigunetik ez dakigunera; bizketa bizitik hizkuntza idatzira; bizkaieratik batura*” abiabidetzat hartuz, euskara jatorra, argia eta zehatza euskalkian egindakoa dala esan eban. Bizkaieraren defentsa sutsua egiterakoan eta administrazio-eremuan hizkuntza-mailarik ez ikustean, danetarako euskalkia proposatu eban, euskara batuaren eremua argi zehaztu barik. Beste zerbait bere ez eban kontuan izan, egin-eginean bere euskaldun zahar askok euskara batu jatorra erabilten dabela eta beste askok euskalki ganorabakoa. Beraren eritziak idatzi-

rik ez egotean hanka motz izten dabe hemen egiten dan laburpen hau.

2.2.3. Kontxi Gabantxo (UEMAko ordezkaria). “*Administrazioan euskaraz jardutea nahikoa gauza barria da. Gure administrazioetan erdera izan da nagusi eta gaur egunean ere, euskeraren esparruan asko egin arren, ondino asko falta da. (...) Kontuan hartu behar da administraioko berbetea oso formala dala eta ondorengo ezaugarriak euki behar dauzala: zehaztasuna, argitasuna eta zuzentasuna*” (Ib. 191. orr.) esan ostean, administrazioaren helburua komunikatzea dala gogora ekarriz honako hau gaineratu eban:

“*Komunikatzea bada helburua, argi dago tokian tokiko berbetea erabiltzea egokia dana. Ez dauka zergaitik bardin izan behar, herriko bando batek, herritar guztiak irakurri eta jakinerazi behar jakena, edo batzar nagusiko akta bat edo gure kasuan mankomunitateko aktak. Argi dago nori edo nortzuri idazten deusagun, modu bateko edo besteko euskera batua ala euskalkia, erabiliko dogula, ikutu bat edo bestea eginez.*” (Ib. 193 orr.)

Zelango jokaera daroen UEMAn argitzean honako hau dino: “*UEMAko herri guztiak euskaldunak diranez, argi daukagu, aboz dibardugunean, herri bakoitzaren herbetan egin behar dogula, eta aisialdiko ekintzetan ere beste horrenbeste. Zabalkunde orokorreko testuetan, aukera zabalera edo batura joten dogu mankomunitateko idazti guztietan, irakurleek testua hobeto ulertu daien eta testuaz idenfitikatuta sentidu dai tezen*” (Ib. 193. orr.)

“*Abozko hartuemonetan herriko euskerea erabilten da herri guztietan. Kontuan euki behar da gure udaletako biztanle gebienak euskaldunak dirala, bataz besteko 10etik 8k euskera dakiela, eta beste kasu batzutan ia danak dakiela euskera. Euskalkia erabiltea udalaren esku dago, udalak erabakiten dau*” (Ib. 195. orr.).

Batua eta euskalkia erabiltzeko UEMAk dituen irizpideak bere eskaini euskuzan, euskalkiek administrazioan izan beharreko lekuari buruz gogoeta eskainiaz:

- *Herritarrentzako ohar, bando eta gutunetan herritarrengandik ahalik eta hurbilen dagoan hizkera erabiltzen dabe guztiek.*
- *Idazki ofizialak diranean (aktak, ziurtagiriak, jakinarazpenak, txostenak...) eta erakundeen arteko komunikazioetarako batua erabilten da” (Ib. 196-197. orr.).*

“Euskara batua sortzea beharrezkoa izan zan euskaldun guztiek alkar ulertzeko. Baina batuaren mesedetan euskalkiak bazterrean itzi dira sarritan. Ondorioz, euskalkien prestigioak behera egin dau eta horretan danok daukagu zer egin. Euskalkiak galdu ez daitezana eta batuak, euskalkiak dauken altxorra jaso daian zer egin handia daukagu.

Zalantza barik, euskalkiek lekua behar dabe administrazioan. Helburua komunikatzea bada, hartzaileak ulertzeko moduko hizkera erabili behar dogu. Egia esateko, euskalkiak erabiltzea esaten dogunean, sarritan, esaten dan moduan idaztea ulertzen da; baina nik neuk, behintzat, arau ortografikoak zainduta eta kontrazino barik idaztea ulertzen dot.

Herri-administrazioak, herritarrengandik hurren dagoan zerbitzua eskaintzen dabenez, hizkera ere hurbilago izatea komeni da. Herri aldizkariak, bandoak, barri zehatzak, albisteak emoteko orduan, toki bakotizari egokituta egotea komini da. Herri euskaldunetan bertako hezkerari edo berbeteari emon behar jako lehentasuna” (Ib. 194. orr.).

2.2.4. Juan Jose Larrea (Unibertsitate publikoko ordezkaria). Argi esan eban unibertsitatean ez jakola aparteko lekurik egiten euskalkiari. Halan da bere ez dala kontrakorik bere egiten irakasleren batek erabiltzen dauanean, ikasleen kexarik izaten ez bada, behinik behin. Unibertsitatea goi mailako irakaskuntza-zentroa izatean batua da bertako berezko hizkuntza.

Euskarari lekua egiten diharduala unibertsitate publikoak langileak nahiz irakasleak trebatzeko aukerak eskainiz. Horretan urrats ugari emon dirala eta ahalegin handiak egin.

2.2.5. Esther Urrutia (Unibersitate pribatuko ordezkaria). Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide fakultatean euskarari egin jakon lekuaz jardun eban, bertan euskara batua dala nagusi esanez.

“Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nabi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idaztiaren barrutian irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura “ederrean” baino areago”.(...)

Bai idatzizkoan, bai abozkoan, beraz, euskera batua erabili behar dugu. Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen den bezala, Deustuko Unibertsitatean ere, bi irizpide nagusi hauek izaten ditugu gogoan, euskera batu horretan hitz egin eta idazten dugunean:

a) Unibertsitatea goren mailako kulturgunea da eta, beraz, goi mailako hizkuntz eredia eskaini behar du, mintzaira zuzen, zehatz eta jasoa, alegia; eta

b) Hizkuntza, betiere, pertsonen artean komunikatzeko tresna bat da, eta gaurko euskaldunen maila nolakoa den jakinda, garbizalekeria antzuak alde batera utzi eta argi ulertzeko mezuak adierazten saiatu beharra dago. Hitz gutxitan, Unibertsitate mailako hizkuntzaren duintasuna, eta ohiko euskaldunen zerbitzutan egotea elkarren artean ezkontzea.” (Ib. 171-172 orr.)

“Eskoletan, abozko azlapenak egiten ditugunean, nahi gabe ere, Mendebaldeko jatorria duten hitzak ateratzen zaizkigu,

batez ere, hitz arruntak direnean, hau da, hitz teknikoak ez direnean. Adibide moduan datoz jarraian halako batzuk: barik, zelan, jagon, martitzena (eguaztena, eguena, barikua, zapatua, domeka), gura, neba-arrebak, nortzuk (zertzuk, zeintzuk), aitita (eta amama), abade, barru, behargin, berba, itaun, ederto, gogaitu, osterantzean, ugazaba, laga, legez.... Halako hitzek euskara batua aberastu egiten dute, eta ukaezina da euren erabilera, baztertu baino gehiago, sutatu egin behar dela". (Ib. 173. orr.)

3. ONDORIO BATZUK

Entzundakoak eta aitaturako liburuan argitaratuta datozenak batuta honako ondokoak atera geinkez:

- Lekua izan dauala euskarak administrazioan historian zehar, guk gura baino gutxiago izan bada bere.
- Administrazioak erabilten dauan berbeta, nahiko zahartuta dagoenez harriztatu beharra dogula. Euskarak arlo horretan orain arte ibilbide laburra egin dauanez aukera ona daukagu bide barrietatik abiatzeko beti bere "zuzentasuna", "zehaztasuna" eta "argitasuna" ahaztu barik.
- Zenbat eta herriarengandik hurragokoa izan administrazioa, hainbat eta leku zabalagoa egin behar jakola euskalkiari, baina idazkera maila egokia erabiliz.
- Euskalkiak leku zabala izan behar dau ahozkoan, hartzailearen berbeta-egoerara egokituta. Hori herritarrekin ahoz izaten diran hartu-emonetan agertu beharko litzateke. Idatzietan, ostera, zuhurtasun handiagoaz jokatu beharko dogu noiz komeni den euskalkia eta noiz batua argiro aztertuz, batuaren eta euskalkiaren erabileran oreka jagoteko.
- Ez zan aitatu baino egin, zelako euskara erabili behar dan euskalki idatzari lekua egiterakoan. Edonola bere, euskara "duina", "jasoa" eta "zaindua" behar daua izan gogora ekarri zan behin eta berrero.

- Euskalkiak hor eta hemen erabili izan badira bere, oraindik bideak ondo zehaztu barik dagoz; beraz, noiz erabili behar diran zehazteaz gainera zelan erabili behar diran bere zehaztu beharko da.
- Jardunaldietan, lurraldez lurraldeko lekukoak egin eben berba, baina Lurralde garrantzitsu bateko lekukorik eza nabarmendu zan, hain zuzen, Gipuzkoako ordezkariaren batena.
- Elkarrizketan aitaturakoaren arabera, bereizketa garbia egin beharko litzake administrazioan, tradiziozko berben eta berba barrian artean. Euskaraz inoz erabili ez diren berba barrietan Euskal Herri osorako berba bakarra hartu beharko litzake, nahasteak aldentzeko eta jendeari euskararen erabilera errazteko.
- Eleizak euskeraren alde egindako lana ukatu ezina bada be, argi ageri da, une honetan atzeraka diaharduela, eta ez dala hori konpontzeko bide argirik ageri.

Amaitzeko, jardunaldi horretan Jose Luis Enparantza "Txilardegi" jaunari egin jakon omenaldia aitatu behar. Mendebalde taldeak, urtero egin izan dauan bideari jarraituz, idazle oparo eta euskaltzale amorratu horri eskaini eutson aurtengo omenaldia, egin-eginean bere, txokokeria guztien gainetik euskara batuaren alde eta, era berean, euskalkien alde egin izan dauan lan handia eskertu guraz. Omenaldiko berbaldia, ostera, Xabier Kaltzakorta jaunak egin eban. Hain jantzia dogun idazle-irakasleak euskara batu ederrean eskaini eutsozan bere omenaldi-berbak.

Azkenik, Mendebalde taldea txalotu gura dot urtero honelako gai interesgarriak mahai gainera ekarri eta aztertzeko aukera ederrak eskaintzen deuskuzulako.

Patxi Uribarren Leturiaga